



TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO

hitza

Osteguna 2008-06-19

VIURTEA 1.464.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Arantxa Estanga, Oscar Renedo eta Asier Bakaikoa, solarium berria izango den lekuan. I. TERRADILLOS

SOLARIUM BERRIA UZTAILERAKO PREST USABAL KIROLDEGIAN


TOLOSA Zonalde berriak liburutegia eta Wi-Fi sistema eta haurrentzako jolastokia izango ditu, besteak beste 2

Jatorkinek elkarretaratzera deitu du «Sidi Ifniko sarraskia» salatzeko

TOLOSA Bihar izango da 20:00etatik aurrera Triangulon 6

«Guardia zibilaren jarrera» salatu du ezker abertzaleak

LEITZA «Errepide kontrolak ia-ia egunero daude eta herrian barrena dabilta», esan dute 7



Musikariak, emanaldiaren une batean. I. GARCIA

Loatzokoek musika doinuekin agurtu dute ikasturtea

ZIZURKIL Jende ugari hurbildu zen Loatzoko musikarien azken emanaldira 4

Altzotarrek interesa erakutsi dute Kirolari Ateak Zabalik egunean 5

Albizturko Herriko Etxea jatetxean lapurreta egin dute 2



Aurrera begira «ekonomia sustatzea» da EAJren xedea

Tolosa » Urtebete igaro da legealdia hasi zenetik, eta EAJ alderdiko Udal ordezkariak beraien proiektuetan mintzatu dira.



EAJren Udal ordezkariak azken urtearen balantzea egin dute. E. EZEIZA

ESTIEZEIZA

Duela urtebete inguru, ekainaren 16an, burutu zuten Tolosan Aparteko Osoko Bilkura, zinegotzien kargu-hartzea eta Udalbatzaren eratze-deklarazioa onartzeko. Orain, hamabi hilabete igaro direnean, atzera begira, eta aldi berean, etorkizunera jarri dira Tolosako EAJ alderdiko Udal ordezkariak. Hiri eredu, giza ikuspegia eta etorkizuna dira jeltzaleen ardatz nagusiak.

Hiri eredu bat zehazten

Egun, Ordenantza Orokorrekin ari dira lanean udaletxean. Uda amaizterako Eusko Jaurlaritzara bidaliko dutela aurreikusten dute, honek ondoren onar dezan. Azkenik, Gabonetarako behin betiko Ordenantza indarrean jartzeko moduan egongo dela uste dute. Hortik aurrera, hitzarmenak lotzen hasiko dira. Hiri eredu horretan, lau atal landu dituzte: sustapen ekonomikoa, ongizatea, komuni-

kazioak eta etxebizitza. Atal hauek baitan, aipatzekoa da, plan horretan, 2.700 etxebizitza berri aurreikusten direla, eta hauetatik, %60a babesekoa izango da. Industriari dagokionean berriz, 110.000 metro koadro eraikigarri egiteko asmoa dute, Apatta Errekako bigarren fasea abiaraziz, eta Amaro inguruak sustatuz. Honekin batera, 1.000 enplegutik gora sortzea aurreikusten dute, eta gune industrial degradatuak berpiztea.

Hiriaren garapenarekin jarraituz, bide gorria hedatuz joango dira gune berrietara. Bestalde, Oria ibaiaren bi aldeak hobeto komuni-

katzeko, zubi berriak eraikiko dituzte. Honez gain, kultur gune berriak eraikiko dira epe laburrean. Horren adibide dira, To.pic zentrua, eta Arkauteko gunea. Amaitzeko, Asuncion Klinikara joateko errepide berria abian dela azaldu zuten Udaleko ordezkariak, eta zenbait biribilgune ipiniko dituztela.

Politika sozialean egindako lana

Behin eta berriro errepikatu zuten herenegun egindako agerraldian, EAJkoek, «dena ez dela zimentua, giza arloan ere lan handia egin beharra dagoela». Tolosako Uda-

laren erronketako bat da, Tolosako kulturarteko herria izatea. Hori dela eta hainbat lan egin ari dira etorkinekin, baztertuekin eta adinekoekin. Gizezko eta emakumezkoen berdintasunaren alde ere hainbat ekimen eman dituzte aurrera. Izan ere, Tolosa da berdintasunerako ordenantza bat onartu duen hiria.

Etorkizunari begira

Aurrera begira, herritarrek Tolosa nolokoa izatea nahi duten zehazteko asmoz, Tolosa 2015 ekimena jarri zuten martxan duela hilabete batzuk. Honen baitan, partaidetza prozesu horretan, bilerak egin dituzte arlo ezberdinetako 120 ordezkariarekin. Egitasmo honetan bost arlo jorratzen ari dira: hiri eredu, enplegu motorra, Tolosa kanpora begira, giza sentsibilizazioa eta modernitatea. Bileren ostean diagnostiko bat egingo dute eta aholkularitza sistema baten bitartez, ekintza plan bat zehaztu, aurrera begira, burutzen joateko.

Etorkizunera begira, bestalde, Tolosa nahiz gainontzeko herriek duten arazo nagusietako bat aldaketa klimatikoarena izango da, eta honi aurre egiteko zenbait neurri hartzen ari da Udala. Honekin lotuta, abian da bigarren mugikortasun plana.

Mugikortasunarekin lotuta, Voith-Gorostidiko eremuan nahiz Alhondiga eta Rondillan aparkaleku berriak eraikiko dituzte. Teknologia arloan berriz, Udate zerbitzua indartzeko asmoa dute, eta Udala herritarrei gerturatu.

Odriozolaren kasua hartuta, Parot doktrinaz mintzatu dira gaur iluntzean

ERREDAKZIOA

Pello Odriozola euskal preso tolosarra 1988ko urtarrilaren 28an atxilotu zuten. Hogei urte baino gehiago espetxean igaro eta gero, datorren uztailean 2an aske geratu behar zuen, zigor osoa beteta. Baina joan den astean, Auzitegi Gorenak 197/06 doktrina, Parot doktrina bezala ezagutzen dena aplikatzeko erabakia hartu zuen.

Epaia salatzeke, eta doktrinaren ezaugarriak zeintzuk diren argitzeko, Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek hitzaldia antolatu dute gaurko. Ekitaldia Kultur Etxeko areto nagusian izango da, 20:00etatik aurrera. Bertan, Odriozolaren abokatua den Ainhoa Baglietto izango da hizlari.

Odriozolari ezarri dioten zigor berri honekin beste hamar urte igaro beharko ditu espetxean, 2018ko urtarrilaren 19an irtengo litzatekeelarik. 20 urte hauetan hainbat eta hainbat espetxetatik igaro da Odriozola, sakabanaketaren ondorioz. Amnistiaren Aldeko Mugimenduko kideek salatu dutenez, «Odriozolari eta lehen, beste 28 preso politikoei ezarritako bizi arteko kartzela zigorra espainiar eta frantziar espetxeetan gertatzen den sarraskiaren ispilu dira». Hala, «euskal presoen neurriko Guantanamo erraldoia eraiki dutela diote».

Herriko Etxea jatetxean sartu ziren atzo gauean lapurreta egitera

Albiztur » Jaki eta edariak besterik ez dituzte eraman; joan den astean ere beste lapurreta bat egon zen herrian.

ERREDAKZIOA

Atzo gauean lapurreta egin zuten Herriko Etxea jatetxean. Goizaldeko lauretan ohartu ziren bizilagunak, norbait jatetxean sartu zela. Adierazitakoaren arabera, eraikinarean atzaldetik sartu ziren, atea apurtuta. Biltegira sartu eta handik zenbait jaki eta edari eraman zituzten. Bizilagunak ohartu bezain pronto Ertzaintzari deitu zion.

Denbora gutxian lapurreta ugari izan dira Albizturren. Duela astebeite eskolara sartu ziren, eta hainbat gauza eraman. 2007ko urtarrilean berriz, jatetxe berean lapurtu zuten, baita elkarte batean ere.



Ikasturte amaierako doinuak

TOLOSA » Ikasturtea amaitu da, eta hori ospatzeko nahiz denbora horretan ikasitakoak erakusteko, konzertu bat eskaini zuten atzo arratsaldean Eduardo Mocoeroa Udala Musika Eskolako ikasleek. Musika obra ezagunak jo zituzten instrumentu ezberdinekin. Guraso nahiz lagun ugari hurbildu ziren aretora urtean ikasitakoak ikustera, musikari gaztetxoaren emanaldia gozatzera. ESTIEZEIZA

MENDI-ALDE

Eguneko menuak eta karta
Bataioak, Jaunartzeak...


Jatetxea

San Esteban auzoa, 39 • Tel.: 943 65 17 99 • 20400 TOLOSA

Beti alai
jatetxea

Garaian
garaiko janariak
Arraikietan berezia

© 943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Erremerterri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Uztaileko lehenengo asterako zabalik egongo da Usabalgo solarium berria

Azpiegiturak »

Haurrentzako jolastokia, liburutegia eta Wi-Fi sistema izango ditu zonaldeak, besteak beste.

izango da funtzio honetarako, baina urteko gainerako sasoean futbol zelai moduan erabili ahaliko da, futbol 7rako, hain zuzen.

Aisirako aukera anitza

Zonalde berri honek aukera ugari eskainiko dizkie erabiltzaileei. Batetik gaztetxoentzat jolastokia jarriko dute; «honek barku forma izango du, eta kulunkak eta txirrista izango dute haurrek jolasteko», azaldu zuen Renedok.

Bestalde, igerileku liburutegia ere solarium berria zabaltearekin batera jarriko dute martxan, eta irailaren 23ra arte erabili ahaliko da, 15:00etatik 19:00etara. Udal Liburutegiak eskainiko du zerbitzua, eta liburua hartu hartu ahaliko ditu erabiltzaileak kiroldegian dagoen unerako, hau da, bertatik ateratzen utzi beharko ditu. Halaber, Wi-Fi sistema ere jarriko dute, beraz, ordenagailu eraman-garria eraman nahi dutenek sare-rako konexioa izango dute.

Solarium berriarekin batera, Usabalera sartzeko beste sarrera ere erantsiko dute. Hala, zuzenean



Solarium berria bi aste barru egongo da erabigarri. I.T.

zonalde berri honetara sartu ahaliko da, sarrera nagusitik pasa gabe. Sarrera berri honetan bizikletak aparkatzeko lekua ere jarriko dute.

2011 urtera bitarteko asmoak

Hirugarren fasearen lehen pausoa besterik ez da izango solarium berria, oraindik ere beste hainbat

proiektu burutzeko baitaude fase horretan. Horien artean dago eskalada-murruarena; dagoeneko onartua dago, eta datorren urtearen hasierarako erabiltzeko moduan egongo dela espero dute. Horretaz gain, padel, patinaje, skate eta tenis zonaldeak ere jartzeko asmoa dute.

Berazubiko instalazioak berri-tzea eta Usabalgoekin bateratzea da beste asmoetako bat. Modu honetan, erabiltzaileek bi instalazioak erabiltzeko aukera izango luke, biak Udalak eta Kirolzer-ek kudeatuko baitituzke, baina oraindik erabat adostu gabe dute proiektu hau.

2011ra bitarte kirolarekin loturiko egitasmoen artean Zerkausiarren inguruan egin nahi duten presa dago. «Aukera ugari eskainiko du amaiturik dagoenean, eta uraren kolektorea jarrita dagoenean, ur garbiarekin askoz ere gehiago oraindik», azaldu zuen Renedok. 2008-2011 urteetako kirol inbertsioetarako 4.300.000 euro behar-ko dituela aurreikusiko du Udalak.

Segurtasun neurriak handitu

Azken aldiari bai kiroldegi barruan bai eta kanpoaldean autoetan-eta izan diren lapurreta salaketak dirrela-eta segurtasun neurriak hartu dituztela ere azaldu zuen atzo Oscar Renedo zinegotziak. «Zaintze sistema handituko dugu, hau da, kanpora begirako nahiz barruko segurtasun kamera gehiago jarriko ditugu; Usabalen bertan kontrolatzeaz gain, kamera hauek Udaltzaingoa ere kontrolatzen dituzte». Horretarako 31.000 euroko inbertsioa egingo duela Udalak gehitu zuen.

Jon Altunak Granada taldearekin sinatuko du bihar

Ibarra » Bigarren A mailan, Eibar taldearekin, jokatu du orain arte; jokatu duen azken denboraldia oso ona izan da.

ERREDAKZIOA

Jon Altuna ibartartarrak Eibarren jokatu du azken denboraldia, bigarren A mailan. Hurrengo urtean, ordea, Granada taldera joango da. Talde andaluziarrekin ostiralean sinatuko du akordioa. Eibarren denboraldi bikaina burutu ostean, Andaluzian aurten lorturikoa hobetu nahiko du ibartarrak.

XIII. mendetik aurrerakoari errepassoa

Kultura » Jose Antonio Recondo Bravok 'Medicina y Tolosa. Siglos XIII-XX' liburua aurkeztuko du gaur.

INIGO TERRADILLOS

Medicina y Beneficencia en Guipuzcoa y Tolosa. Siglos XIII-XX liburua aurkeztuko du gaur Jose Antonio Recondo Bravok (Tolosa, 1944), 20:15ean, Tolosako udaltxeko batzar aretoan.

XIII. mendetik XX. mendera arteko irudiak bildu dituzten liburua honetan Recondok, eta irudi horien bidez, tuberkulosia Tolosan XIX. mende amaieratik XX.aren hasierara, XII. mendetik XVII. mende-



lurreamendi egoitza da liburuan agertzen den irudietako bat. HITZA

ra bitarteko epidemiak eta hauek nola artatzen zituzten erietxeetan, babesturiko haurrek, txiroak eta miserikordi etxeak, Gerra Zibila

eta gerraostea bezalako gaiak aztertutakoak dira, besteak beste.

Jose Antonio Recondo sendagilea da bere aita Paulo Recondo be-

zala. «Nire aitaren omenez egin dut liburu hau, zor hori nuen berekin», azaltzen du. Hain zuzen ere, bere aita biriketako gaitzetan berezitu zen sendagilea izan zen, eta horretaz gain, Andazarrate erietxeko zuzendaria ere izan zen 1933tik 1956ra, eta tuberkulosidun pabelioan ere izan zen miserikordi etxean. Halaber, Paulo Recondoren omenezko kalea ere badago Tolosan.

Pasa den urtean historia liburu bat egin zuen, eta hau gisa horretako bigarrena da. Urtebete inguruko dokumentazio eta ikerketa lana egindu. «Tolosako artxibo osobaliagarria izan da, 30 lagun ingururi elkarrizketa egin diot, Ferroleko artxibo militarrean izan naiz, Diptazioan, Andazarraten...».

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN agertuko da

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

«Herritar askok erakutsi du interesa» aurtengo Kirolari Ateak Zabalik Egunean

Altzo » Araxes ibaian amuarrainak askatu zituzten, eta ondoren, frontoian pilota partidak izan zituzten ikusgai.

NEREA URBIZU

Altzotarrak joan den igandean Kirolari Ateak Zabalik eguna ospatu zuten, eta honetan «jende askok hartu nahi izan zuen parte». Eguneko egitarauaren baitan, Altzoko Udalak pilotari eta errekaaren ekosistemari egin zion lekua.

Autoa hartuta Araxes ibaira jaitzi ziren, Amategi auzora. Bertan, bertaratu zirenek ibaiaren ekosistema hobeto ezagutzeko bisita interesgarria egin ahal izan zuten. «Haurrek gehienbat basoak ezagutzen dituzte, baina ez hainbeste

ibaiaren inguruko landaretza eta fauna», zioten antolatzaileek. «Erreka ertzetik igaratu eta beste baso mota hori nolakoa den ere ezagutu zuten hara joan zirenek».

Ibaian, amuarrainak askatu zituzten: umeek desagertzeaz, edo behera doazen ur gezetako arrain hauek eskuarekin hartzeko aukera izan zuten, eta ibaian behera askatze gero.

Frontoian pilota partidak

Araxes hobeto ezagutu ondoren, Altzoko muinora igo ziren berriz, han, pilotalekuan hamaiketakoak denek elkarrekin egiteko. Etxetik eramandako gosaria jatearekin batera, Udalak jarritako edaria ere dastatu zuten herritarrek.

Bukatzeke, pilota partidak izan ziren han bertan. Adin guztietako pilotariak elkartu ziren: 7 urtetik 18

urte bitartekora bildu ziren eta eguerdira arte aritu ziren, bai neskek eta bai mutilak ere. Batzuk palaraz aritu ziren, eta besteak, eskuz.



Frontoian pilota partidak izan ziren. HITZA



Araxes ibaian bertako ekosistemaz aritu ziren eta amuarrainak askatu zituzten bertan. HITZA

IX. Zaldi Lasterketa antolatu dute iganderako

Abaltzisketa » Aurten oraingoz 12 zaldunek eman dute festetan izango den zaldi lasterketan parte hartzeko izena.

N. URBIZU

Abaltzisketako San Joan jaiak bihar hasiko dira, eta azken 9 urteetan egin duten bezala, zaldi lasterketa antolatu dute datorren iganderako. Bertan parte hartzeko oraindik aukera badago, bihar arte, hain zuzen. 18:00etan izango da Amezketatik hasi eta Abaltziske-

tako azkeneko bihurguneraino iritsi arte.

Zaldi lasterketa hau apustu baten ondorioz hasi zuten, eta dagoeneko 9. urtea da. Aurten, oraingoz 12 zaldunek eman dute izena. «Herriko parte-hartzaileek ez dago aspaldian, eta kanpotik datoz. Tolosaldeko 4 bat daude oraingoz. Egia da ere, parte-hartzaileek gero eta zaldi hobea gero ekartzen dutela», dio antolatzaileetako batek.

Orain arte denborarik onena lau minutu eta 7 segundo izan da, «baina orokorrean denek lau minuto behar izaten dituzte».

Egun honetan jende asko gogotzen da Abaltzisketara, motza baina ikusgarria baita. «Jende gehiena herri muinoan biltzen da, Abaltzisketan».

Parte-hartzaileen artean banatzeke sariak ere badaude. Iristen diren lehenengo bost laguntzako izango dira hauek.

Zaldian paseatzeko aukera

Ondoren, zaldian ibiltzeko aukera izango da Abaltzisketa inguruan. Aurten, zaldiak izango dira eta nahi duenak igo eta paseo laburrak egin ahal izango ditu, beti ere baten baten gidaritzapean.



Zaldi karrerak 9 urte bete ditu. M.J.

» IX. ZALDI LASTERKETA

- **Eguna.** Ekainak 22, igandea, Abaltzisketako jaien baitan.
- **Ordua.** 18:00etan.
- **Ibilbidea.** Amezketatik Abaltzisketaraino, autoen errepidez.
- **Distantzia.** 2,5 kilometro aldapa gora.
- **Irteera.** Amezketan.
- **Izen-emate epea.** Bihar arte telefonoz: 605 756 743.
- **Sariak.** Lehenengo bost laguntzat izango dira.
- **Ondoren.** Zaldiak haien gainean paseoak egiteko, Abaltzisketan.



Artista txikiak handien pare jarrita

ALBITZUR » Albizturko herri eskolako ikasleek historiako margolaririk garrantzitsuenak hartuta, haien obrak erreproduzitu dituzte. Herri-tarrek hauek ikusteko aukera izan zuten atzoko arratsaldean zehar. Ikasle helduenek gidari lanak egin zituzten eta txanda ezberdinetan, bertara hurbildu zireni, obra bakoitzaren xehetasunak azaldu zizkieten. Ondoren, bisitariak erakusketaren inguruko iritzia eman zuten papertxo batean, eta meriendatxo bat ere dastatu ahal izan zuten bitarte horretan. E.EZEIZA

Sanjoanetako bertso saioa

Bertsolariak:
Anjel Mari Peñagarikano, Amaia Agirre, Jexux Mari Irazu eta Iker Zubeldia.

Gai-jartzailea:
Iker Iriarte.

TOLosaldeko Udala
Antolatzailea: Euskara batzordea.

Ekainak 23, astelehena • 19:30ean
Tolosako Zerkausion Sarrera doan

Sidi Ifni hirian «sarraskia» egiten ari direla salatu dute

Tolosa » Jatorrin elkarrean elkarretaratzera deitu du bihar 20:00etan Sidi Ifniko hiritarrei elkartasuna azaltzeko.

ASIERIMAZ

Marokoko Sidi Ifni hirian bizi duten «egoera larria» salatzen elkarretaratzera deitu du Jatorrin elkarrean bihar 20:00etan Triangulon. Bilkuraren helburua «Sidi Ifniko biztanleei elkartasuna azaltzea» izango da.

Jatorrineko kideen esanetan «poliziak Sidi Ifni inguraturik dauka. Hildakoak egon direla esan digute, gutariko batzuk bertan ditugun senideek. Polizia etxeetara sartu da, emakumeak bortxatu dituzte, etxeetan harrapatzen duten guztia eramaten dute, sarraskia egiten ari dira. Marokok informazioa ezkutatu egiten du eta ez dakigu benetan zer gertatzen ari den. Hala eta guztiz ere, senideekin hitz egiteko aukera izan dugu; egoera oso larria da, jendea atxilotu edo desagertarazi egiten dute. Batzuk

mendietara ihes egin behar izan dute».

Marokotik urrun egon arren, Europako hainbat hirietan egin diren salaketa ekitaldiekin jarraituz, bihar Tolosan elkarretaratzea egitea erabaki dute. Jatorrineko kideek, «bertara eskualdeko herritar guztiak deitzen ditugu, Sidi Ifniko hiritarrei elkartasuna azaltzeko».

«Zigorra jasotzen ari gara»

Sidi Ifni Maroko hegoaldean aurkitzen da, Kanariar uharteen albon. 20.000 biztanle inguruko hiria da eta kostaldean dago. Sidi Ifniko hiritarrek Marokoren parte sentitzen dira; «guk ez dugu independentzia eskatzen, Marokoren parte gaituzte. Eskatzen dugun bakarra bizi baldintza duinak dira. Baina zigorturik gaude, guk eginiko eskaerei baietz esan arren inoiz ez dituzte egiten. Ez pentsa beste munduko ezer eskatzen ari garenik, ez baitugu independentzia edo horrelako ezer eskatzen: ospitale bat eskatzen dugu, errepideak eskatzen ditugu, portu handiago bat, bizi baldintza hobekak eskatzen ditugu».

Sidi Ifni arrantzatik bizi izan da. Espainiaren kolonia izan zen Francoren garaian. Jatorrineko kideen esanetan, gaur egun zigor moduko bat jasotzen ari dira. «Espainiarrek inguruko ospitalerik aurreratuena gauen, errepideak, portua,... Ondoren Marokorekin bat egin genuen espainiarrak gure lurretatik bidaltzeko, hauek 1969an alde egin behar izan zuten. Orduz gero genuena mantendu beharrean galtzen joan da. Langa-bezia handia dago, jendeak alde egin behar izan du, ez baitago bertan ezer egiterik. Arrantzatik bizi izan gara baina gaur egun gobernuak bertan dagoen arraina kanpora eramaten du. Lan horretarako erabiltzen dituen langileak kanpotik eramanak dira, bertakoak erabat baztertuak. Zigor moduko bat jasotzen ari gara».

Iskanbilak duela bi aste lehertu ziren, nahiz eta urtetako eskaerak izan Sidi Ifniko hiritarrenak. Duela bi aste 80 bat lagunek arraina gerraizatzen zuten kamioiei portutik ez zien irteren utzi, protesta moduan. Gobernuak erantzun bezala 12.000 polizia bidali zituen.



San Bartolome jaietan haur danborrada egiteko deialdia egin dute. HITZA

Jaietako haur danborradan izena emateko aukera

Ibarra » Ekainaren 30era arte dago izena emateko aukera eta entseguak uztaila eta abuztuan zehar egingo dira.

A. IMAZ

San Bartolome jaietako danborradaren prestaketa lanekin eta entseguen hastear daude Ibarra. Hori dela eta, bertan parte hartu nahi duten 2004. urtetik atzera jaiotako haur eta gaztetxo guztiak, hau da, aurtun 4 urte betetzen dituztenek, Zubiaurre, Sendi-Ekintza, Txumitxa, Danon, Ostaize eta Gaztelubide tabernetan zein Kultur Etxean jarriko diren zerrendan izena eman dezakete.

Danborradarako entseguak

Haur danborradako entseguak uztailan 2an, 9an, 16an eta 23an izango dira. Abuztuan berriz 20ean eta 21ean.

Parte hartuko duten haur eta gaztetxoek entseguak Belabieta kiroldegian egingo dituzte aipaturako datetan. Orduari dagokionez 20:00etan hasiko dituzte entseguak.

Antolatzaileek azaldu dutenez, «San Bartolome jaietako haur danborradan parte hartu nahi duten haur eta gaztetxoek jakinarazten zaie izena emateko azken eguna ekainaren 30a, astelehena, izango dela, eta danborradan atera ahal izateko, gutxienez 2 entseguetan parte hartzea ezinbesteko baldintza dela».



Furgoneta lagun greba ibiltarian

Tolosa » ELA sindikatuak elkarretaratzea egin zuen atzo Tolosako Udalaren aurrean. «Grebaren gauden Faustino Orbegozo egoitzako langileok, furgoneta ibiltaria lagun dugula, Gipuzkoa guztiaren zehar, Diputazioaren Gizarte Politika pribatizatzailea eta aldi be-

rean, subrogazio eza salatzea dugu helburu». Greban dauden ELAko langileek «bi urte borrokan eta lau hilabete greban» daramatzaten arren, borrokan jarraitzeko «indarra eta kementa» dutela azaldu nahi izan zuten atzo Tolosan. ESTI EIZBA

Iragarki laburrak

LANA

■ **Zaintzailea.** Neska/emakume euskalduna behar da haurrak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Ez da udararako. Interesatuak deitu: 635 72 20 47/635 71 24 41.

SALGAI

■ **Etxea.** Etxebizitza salgai, Tolosako Alde Zaharrean. Merkea. Obra egin behar da. Interesatuak deitu ondorengo telefonoetara: 657 23 00 11/634 91 94 82.

④ **Eztabaidak.** Amnistiaaren Aldako Mugimenduauren aurka-ko epaiketan Villabonako Julen Zelarain aurkitzen da auziperatua. Zer duzu honen inguruan esateko? Sartu gure webgunean eta eman zure iritzia. Horretaz gain, eskualdeko hainbat gairen inguruan jendeak idatzi duena irakurtzeko aukera izango duzu:

www.tolosaldekohitza.info

Laburrak

AHT Gelditu! Elkarlanak deialdia egin du etzirako

Tolosa » AHT Gelditu! Elkarlanak deialdia egin du etzirako, larunbaterako. Tolosako Triangulon 12:00etan elkartuko dira eta *Zundaketak badatoz, inposaketari aurre* egin lelopean ekintza egingo dute. Elkarlana taldeko kideek eskualdeko herritar guztiak gonbidatu nahi ditu deialdiarekin bat egitera.

Zeberio II.ak Ezkurraren aurka jokatu du gaur

ELDUAIN » Hernaniko Galarreta pilotalekuan Patxi Zeberio jokatu du gaur. Osteguneroko jaialdia 16:00etan hasiko da eta ohi bezala lau partida jokatu dira. Patxi Zeberio jokatu du Etxeberria III.a lagun duela. Arerio bezala berriz Ezkurra-Badiola bikotea edukiko dute. Partida 40 tantura jokatu da eta jaialdiko estelarra izango da zalan-tzarik gabe.

Aranalde eta Altuna gaur epaituko dituzte Parisen

POLITIKA » Maite Aranalde eta Haimar Altuna euskal presoak gaur epaituko dituzte Parisen, Frantzia. Maite Aranalde ibartarra eta Haimar Altuna lizartzarra 2005. urtean atxilotu zituzten eta orduz gero espetxean egon dira epaiketaren zain. Familia eta lagunak atzo abiatu ziren Parisera.

Udako Festa bihar Haur Liburutegiaren aurrean

Tolosa » Tolosako Haur Liburutegiaren Udako Festa egingo dute bihar arratsaldean. Haur Liburutegiaren aurreko lorategian 17:30ean 1,2,3... *Iñaxito* bertso antzerkia egongo da, 5-12 urte bitarteko haurrentzat. 18:30ean Txokolatada egongo da. Biharko festaz gain, etzi liburutegiak Samaniego Ikastetxearekin batera stand bat jarriko dute sarjonetako azoka berezian.



Joan den astean egin zuten prentsaurrekoa, «Guardia Zibilaren jokaera salatzeako asmoz». HITZA

«Guardia Zibilaren jarrera» salatu du ezker abertzaleak herrian eta inguruan

Leitza » Azken hilabeteetan «errepide kontrolak ia egunero daude eta herrian barrena ibili dira», salatu dute.

ERREDAKZIOA

Joan den astean Leitza ezker abertzalea bildu zen, «leitzarrok eta Leitza inguruan Guardia Zibilaren eskutik jasaten dugun jazarpena eta errepresioa salatzeako». Kasu honetan, bereziki «azken hilabeteetan Guardia Zibilak mantentutako jarrera» salatu nahi izan zuten.

Ezker abertzaleatik azaldu dutenez, «errepide kontrolak ia egune-

ro daude». Honetaz gain, beste hainbat jokaera zehatz ere salatu nahi izan zituzten: «Otsaileko arratsalde batean, herriguztiko sarrera-irteeretan kontrolak jarri eta herrian barrena armak eskuan, 20 bat herritar identifikatu zituzten; apirilko goiz batean ere errepikatuz zuten jokaera bera». NafaRock egunean gertatutakoa ere salatu zuten. «Maiatzaren bukaeran egin zen "NafarRock" kontzertu egunean, 4 orduz kontrolak jarri zituzten herriko sarrera-irteeretan, ordu luzez erretentuta eduki zituzten kontzertura zetozen edota herrira heldu ziren hainbat eta hainbat lagun, goitik beherako arakatak jasan zituzten, nikiak eta sudaderak lapurto zituzten... La-

rriena, halere, honako hau izan zen: kontrolean galdeketa ilegalak egin zituzten guardia zibilek hainbati eta, guk dakigula, hiruk belarrondokoak ere jaso zituzten». Honetaz gain, egun horretan ere, Doneztebetik Leitza errepidea osotara itxi zutela azaldu zuten, 6 patrolek: «Inork ezin zuten pasa eta, jende ugari atzera buelta eman zuen edo, kontrola kendu zuten arte itxaron zuten».

Basa-kabiko gertaera

Basa-Kabi inguruan gertatutakoa ere jakinarazi zuten. «Prentsatik jakin dugunez, gazte bati Basa-kabi inguruan kotxea geldituarazi eta atera, lurrera bota, biluztuarazi eta larrugorritan eduki dute, pisto-

la eskuan zuten paisanozko batzuk, ia ordu betez. Egun honetan Guardia Zibilaren helikopteroa herria inguratu zuen hirutan». Gainera «kotxe eta jende susmagarria» dabilela gehitu zuten, «herriko leku ezberdinetan ordu luzez (7 ordutik gora), beste kotxe bat txanda egitera etorri arte».

Amaitzeko, gertaera hauek salatzearaz gain, «errepresioa ez dela bidea argi» ikusten dutela gehitu zuten bukaeran. «Elkarrizketarekin eta euskal herritarren eskubideak onartu eta errespetatu bakarra gaindituko dugu egun bizi dugun gatazka».

Bihar egoera hau salatzeako elkarretaratzera deitu dute Lopeneko iturrian, 20:00etan.

Plazaola aldizkarian parte hartzeko bi deialdi egin dituzte

Leitza » Idatziak bidali daitezke, alde batetik, eta aldizkario azaleko lehiaketa ere dagoeneko zabalik dago.

ERREDAKZIOA

Festetako Plazaola aldizkarian parte hartzeko deialdi pare bat egin dituzte. Alde batetik, gertaera zaharrak, kritikak, txistek, komikiak eta horrelakoak bidaltzeko deialdia egin dute eta bestetik, aldizkariaren azalaren lehiaketan parte hartzeko.

Lehenengoari dagokionez, norbaitek zerbait bidali nahi izanez gero, ekainaren 27an amaituko da epea, eta idatziak Aurrerako buzoiean utzi behar dira. Bestetik, azaleko lehiaketan parte hartu nahi dutenek lana beranduenegun berean entregatu beharko dute, Aurreran eta lehiaketa 2 sailetan banatu dute: 16 urtetik beherakoetan eta 17 urtetik gorakoetan. Urtero bezala, irabazleek sariak jasoko dituzte.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alikza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoain. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irura. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larriald: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen.: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Renfe: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarar autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Gutunak

Leitza, Areso, Goizueta eta Aranori esker onez

Hitz hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkizuet Leitza, Areso, Goizueta eta Aranoko biztanle guztioi, zuen gutun jasotako harreragatik. Gogoan ditut ere gure artekit joan direnak ere.

Jadanik badakizuen bezala, Azpeitia aldera noa lan egitera. Elkarrekin pasa ditugun momentu onak eta txarrak ahaztu ezinak izango dira.

Orena opa dizuet denei eta mila esker. Izango dugu elkarren berri.

Estebe Ezkurdia, medikua. Leitza.



Bi astetan, pilotari buruzko 120 orri prentsan

LEITZA • Bukatu da buruz buruko finala eta igandea iritsi arte 2 asteak luze joan dira leitzarrentzat. Komunikabideetan ikaragarriko oihartzuna izan du Barriola eta Bengoetxearen arteko finalak: teletistikak, irratiak, argazkilarikak, kazetariak... egunero ibili dira herrian bueltaka. Hori dela eta, Maimur liburudendako Joxerra Intxaustik 2 aste hauetan prentsan atera diren artikuluz guztiak fotokopiatu eta liburu batean bildu ditu: 120 orri. n.g.



20°
13°

GOIZA EGUZKIA
ARRATS. OSTARTEAK 21°
BEROENA 21°
HOTZENA 16°

Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitatea: 661 678 818 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoetalea: 687 410 022. anoetalea@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarralde: 687 410 032. ibarralde@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leitzalde: 687 410 118. leitzalde@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:

BERTAKO
HEDABIDEAK



eta Tolosaldeko eta
Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Armezeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Elduain, Gaztelu, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Lizartza, Oresa, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Deialdiak

■ **Alegia.** Intxurre pilota eskolako denboraldi amaieran afaria egingo dute uztailaren 3an. Izen-ematea Alegiako Kultur eta Kirol Etxean eman behar dute izena.

Hitzaldia

■ **Tolosa.** Jose Antonio Recondo Bravo jaunak idatzitako *Medicina y Beneficiencia en Guipuzcoa y Tolosa. Siglos XIII-XX* liburuauren aurkezpena Kultur Etxean 20:00etan.

Zinema

■ **Tolosa.** Yohi Yamadaren *Love and honor* (JBA) emango dute Leidor aretoan 19:15ean eta 21:45ean.

Kirolak

■ **Tolosa.** Ekainaren 25, 26, 27 eta 28an jokatu da XIX. San Joan Areto Futbol Txapelketa Usabalen. Izen-ematea, Shanti kirolak dendan edo 943 67 60 93an.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Morant, R. Zabalarreta, 1.943 673649.
■ **Leitza.** Plaza, M.T. Elbarren, 36. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanenen eta iritzien erantzunik.



Umorea ardatz, ikasitakoa erakutsiz

TOLOSA ■ Dantzak hartu zuen lekua atzo Leidor antzokiko eszenatokian. Izan ere, Tolosako Izaskun Arriola dantza taldeari ere heldu zaio ikasturteari agur esateko unea eta nola hobeto, tolosarrei ikasitakoa erakutsiz baino. Jende ugari bildu zen Izaskun Arriolaren gidaritzapean ikasten du-

ten gaztehoen dantzak ikustera eta bertaratuen gozamenarako umorea ardatz izan zuten dantzari txikiak. Adin guztietakoek hartu zuten parte emanaldian eta ikusleek ederki igaro zuten. Merezitako atsedendia izango dute irailera arte. INIGO TERRADILLOS

txokoa **h**

antzezlanerako
2 sarrera pare zozketan

irabazleak:

- Amaia Jauregi (Tolosa)
- Rosario Arozena (Lizartza)

Ostirala, ekainak 20 ◦ 20:30ean ◦ Tolosako Leidorren

**Hor
al
zaude?**



HITZAren harpidedunentzat abantailak

sarrerak leihatilan bertan izango dituzue

tolosaldeko-hitza.

iragarkilaburrak.com

zure-iragarkia tolosaldetik eta leitzaldetik euskal herrira

iragarkilaburrak.com
euskal herriko iragarki laburren atoka